

07 JUN. 2021

Maddi Txintxurreta



Nerea Loiolak 'Epizentroa' argitaratu du, zazpi ipuinez osatutako narrazio bilduma

Nerea Loiola Pikazak 'Epizentroa' (Erein, 2021) liburua eman du argitara, zazpi ipuinez osatutako narrazio bilduma. Lurrikarak ditu mintzagai, gorputz orok bizitzan pairatzen dituen horiek, eta hor, dardararen epizentro eta hipozentroaren artean, kokatu ditu pertsonaiak.



Nerea Loiola, 'Epizentroa' lana eskutan. (Gorka RUBIO/FOKU)

'Epizentroa' zazpi ipuinez osatutako narrazio bilduma aurkeztu du Nerea Loiola Pikazak astelehen honetan Donostiako Udala Liburutegian, Erein argitaletxearekin batera. 'Harri bat poltsikoan' (Erein, 2018) eta 'Azken lanhütarra' (Erein, 2019) haur literaturazko lanen atzetik, helduentzako lehen ipuin bilduma du 'Epizentroa' idazle eta ingeniari debarrak.

Azken lan honetan, bizitzaren ohiko lurrikaretan pausatu ditu Loiolak ipuinetako zazpi protagonistak, emakumeak denak, eta hortik datorio izena lanari, barruko ipuinetako batekin konpartitzen duena.

Liburuaren aurkezpenean egileak azaldu du epizentroaren definizioa «gorputzetara ekarri» nahi izan duela, hala egunerokotasunean bizitzen diren sismo txikiak, nola gorputzok astintzen dituzten lurrikarak sortzen dituzten aldizkako momentuak, izan «haur bat izaterakoan, harreman bat amaitzerakoan edo lan aldaketak»; finean, esan du, «sistemak ezartzen digun ustezko zioriontasun horren konstruzioan ematen direnak», onak edo txarrak izan daitezkeenak.

'Epizentroa'-ren gakoa da, baina, lurrikara horiek nondik datozen ulertzea. Zeren, eta Nerea Loiolak hala azpimarratu du, gauza bat da «non, nola eta noiz» sentitzen duzun lurrikara, eta bestea «non, nola eta noiz» sortu zen, non den hipozentroa». «Zer gertatzen da: lurrikara horiek ikusi, nabaritu, lurrazalean nabaritzen ditugula, azaletan, gorputzetan. Ikusten duguna oso urruti dago mugimendu sismikoaren fokutik. Eta ari naiz, noski, besteek izandako lurrikaretatik ikusten dugunaz: baina ari naiz, baita ere, eta bereziki, geure buruez», esplikatu du Loiolak.

Ataka lohitsu horretan ezarri ditu, beraz, ipuinetako pertsonaiak: iragana eta orainaren arteko dantzan, lurrikaren sorleku eta epizentroetan; egoera konprometitu bitaletan. Hots, amildegietan: «Alde batetik dagoelako erabakiak hartzeko ataka konplikatuta hori; eta, ondoren, askotan zailagoa izaten dena, erabakitako hori benetan gauzatzearena».

«Irudikatzen ditut pertsonaiak batzuetan pentsatzen: orain lehertu den hau, noiz hasi zen dardaratzen?; eta beste batzuetan, berriz: Orain sentitzen dudana dardara hau, zein lurrikaretakoa da? Batzuetan pertsonaiak kontziente dira iraganarekiko edo etorkizunarekiko loturaz eta beste batzuetan ez», agertu du debarrak.


Distantziak

Nerea Loiolak 'Epizentroa' lanean jaso dituen zazpi ipuinak ez dute haien artean loturarik, badira nobelara gerturaten diren ipuinak, distopikoak edo kutsu poetikoa dutenak, baina badira gai batzuk errepikatzen direnak; maitasuna, gurasotasuna, desioa edo sexua, kasurako eta, ororen gainetik, «harremanetan ezarritako ardatzak» eta horien inguruko aferak. Harreman horien simetria eta asimetriak xehetasunez kontatu ditu egileak, detaileari beha, keinuei adi.

Dena den, ipuinek badituzte konpartitzen dituzten elementuak. Protagonista denak emakumeak dira eta horietako asko, Loiolak onartu duenez, berarengandik «oso urruti» kokatzen dira. Esan du distantzia eman ziela pertsonaiei, «gai batzuk mahai gainean jarri» eta bere buruarekin «zintzoa izan ahal izateko». Horrela, agertzen da haur bat 'Itsaso zuria' ipuinean, protagonista lesbiana da 'Cusine et Santén' edota migrantea '17.03' ipuinekoa.

Aurkezpenarekin amaitzeko, 'Epizentroa' liburuko pasarte bat irakurri du Loiolak: «Ikaratu egin da ulertu duenean bat-batean nabarmena egin zaien errealitatea aspalditik duela bere. Aitortu behar duelako: eroso dago. Erosoa zaio nola sentitu behar duen besteek bideratzea, besteek erabakitzea. Hala, existitzera muga daiteke bera, bere buru kulunkariaren maizter izatera. Besoak zabaldu, eta, datorrenari zainetan txirikordatzen utzi. Eta hondoa jotzen badu, txirikordatutakoa askatu ezingo duen arren, ez du erruaren lasta bere gain hartu beharrik izaten. Lau egunez jarraian aurrez prestatutako fideo japoniarrak jatearekin, kito».


PUBLICIDAD



PUBLICIDAD




PUBLICIDAD




Lo +



Un montañero de 30 años fallece por una fuerte caída en el Txindoki y su compañero es rescatado




Greban dauden Petronorrek langileen aurka oldartu da Ertzaintza



40 años después, descubren un vídeo 'jurásico' de Van Halen



Ho Chi Minh, turista a la fuerza en Euskal Herria hace 75 años



Carlos, con esclerosis múltiple, se enfrenta a una demanda de desahucio del Obispado de Bilbao

Te puede interesar

Euskal Herria

Espetxea eta gaixotasunaren inguruko film baterako crowdfunding kanpaina hasi du Sarek

NAIZ

Cultura

'La calle del terror': la trilogía de R.L. Stine que rememora nuestros primeros escalofríos

Koldo Landaluze



Cultura

Salen a la luz grabaciones inéditas de Joao Gilberto cinco décadas después

NAIZ



Viajes

Tras las huellas del entrañable Urola

Eguzki Agirrezabalaga

naiz:

Info

Euskal Herria
Economía
Mundo
Naiz+
Bilbotarra
Donostiarra
Gasteiztarra
Iruidarra

Deportes

Fútbol
Baloncesto
Balonmano
Pelota
Ciclismo
Remo
Motor
Herri Kirolak
Rugby

Opinión

Editoriales
Zugazart
Artículos
Cartas al director
Blogs de opinión

Cultura

Videos
Galerías
Audios

Esquelas
Tienda
El Tiempo

Recibe nuestra newsletter

Te enviaremos noticias únicamente para que las conozcas. Sin spam.

Email

ENVIAR

: irratia EN DIRECTO